## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-5877

259/2003 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzkoa dekretua aldatzekoa.

Ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuak honako hau arautzen du: Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ekoizpen integratuaren sistemara biltzen diren nekazaritzako eta elikagaigintzako animalia- zein landare-jatorriko produktuen ekoizpena, lantzea eta merkaturatzea.

Dekretu horren 5. artikuluan «Euskadiko Ekoizpen Integratua-Producción Integrada de Euskadi» aipamena erabiltzen uzten die nekazaritzako edo elikagaigintzako produktuen operadoreei, baldin eta dagozkien arau teknikoek jasotako arau guztiak bete badituzte eta ekoizpen-prozesu guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuaren barruan gauzatu bada.

Aipamen hori («Euskadiko Ekoizpen Integratua-Producción Integrada de Euskadi») Kontseiluaren 1992ko uztailaren 14ko 2081/92 Erregelamenduan (EEE) jasotzen den araudi komunaren kontrakoa izan daiteke (babestutako geografia-aipamen eta jatorri-deiturei buruzkoa da araudia). Horretaz gain, kontuan hartu beharrekoa da ez dagoela asmorik berme-marka hori Euskadiren aipamenaz erregistratzeko ez eta nekazaritza integratuaren sistemaz lorutako ekoizpenaren berariazko identifikazio-logotiporik sustatzeko ere.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiei eta tartean dauden antolakunde eta entitateei kontsultak egin zaizkie arau hau prestatzerakoan.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko urriaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzko otsailaren 13ko Dekretuaren izenburuaren ordez, honako hau jarri behar da:

«31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, Ekoizpen Integratuari buruzkoa.»

***Bigarren artikulua.***– Ekoizpen integratuari eta hura nekazaritzako elikagaietan adierazteari buruzko otsailaren 13ko 31/2001 Dekretuaren 5. artikulua kendu egin da.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-5877

DECRETO 259/2003, de 21 de octubre, de modificación del Decreto sobre producción integrada y su indicación en productos agroalimentarios.

El Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada y su indicación en productos agroalimentarios, regula en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco la producción, elaboración y comercialización de los productos agrarios y alimentarios, de origen animal y vegetal, que se acojan al sistema de Producción Integrada.

El artículo 5 de dicho Decreto permite utilizar la mención «Euskadiko Ekoizpen Integratua-Producción Integrada de Euskadi» a los operadores de productos agrarios o alimentarios que hayan cumplido con las normas contenidas en las correspondientes normas técnicas cuando todo el proceso productivo se haya realizado dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Teniendo en cuenta que la citada mención, «Euskadiko Ekoizpen Integratua-Producción Integrada de Euskadi», puede ser contraria a la normativa común sobre indicaciones geográficas protegidas y denominaciones de origen que recoge el Reglamento (CEE) n.º 2081/92, del Consejo, de 14 de julio de 1992, y que no existe intención de registrar esa marca de garantía con la mención Euskadi ni de promocionar ningún logotipo de identificación específico de la producción obtenida mediante el sistema de agricultura integrada.

Las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como las organizaciones y entidades interesadas han sido consultadas en la elaboración de la presente norma.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de octubre de 2003,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El título del Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada y su indicación en productos agroalimentarios, se sustituye por el siguiente texto:

«Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada.»

***Artículo segundo.***– Se suprime el artículo 5 del Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada y su indicación en productos agroalimentarios.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko urriaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

**Zk-5878**

AGINDUA, 2003ko irailaren 26koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, uren kalitatea eta horrek akuikulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioak aztertutakoan, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldeen sailkapena ezartzen duena.

Urek molusku-hazkuntzarako duten kalitateari buruzko 1979ko urriaren 30eko 79/923/EEE Zuzentaraua betetzeko, agintaritza eskudunek ekoizpen-aldeak finkatu eta sailkatu behar dituzte, uren kalitatea eta horrek akuikulturan eta itsaskien bilketan dituen ondorioak oinarritzat harturik.

Horretan oinarriturik, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko uztailaren 2ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasertzeko itsas aldeen sailkapena ezarri zen, uren kalitateari eta akuikultura eta itsaski-bilketa arautu beharrari dagokionez. 1997ko uztailaren 1eko Aginduaren bidez, aipatutako aldeetan egindako analisien ondorioz, kutsadura mikrobiologikoaren maila aldatu zeneko aldeen sailkapena aldatu zen. 1998ko urriaren 16ko Aginduak 1997ko sailkapenari eutsi egin zion, kutsaduraren azterketen arabera alde horien egoera berdintsua baitzen.

Euskadiko itsasertzeko kutsadurari buruz egindako azterketa eta analisi biologikoek emandako datuen arabera bakteria-indizea altua zen eta oxigenazio-maila baxua. Hori dela-eta, 1999ko irailaren 28 Aginduaren bitartez berriz ere aldatu zen alde batzuen sailkapena, urek ez baitzituzten osasun-baldintzak betetzen.

2000ko abenduaren 12ko Aginduak eta 2001eko irailaren 24ko Aginduak 1999ko irailaren 28ko Aginduan zehaztutako sailkapenari eutsi zioten, aurreko idatz-zatian azaldutako kutsadurak bere hartan jarraitzen baizuen.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

**N°-5878**

ORDEN de 26 de septiembre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se establece la clasificación de las zonas marítimas del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con la calidad de sus aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo.

En cumplimiento de la Directiva 79/923/CEE, de 30 de octubre de 1979, relativa a la calidad exigida a las aguas para la cría de moluscos, las autoridades competentes deben delimitar y clasificar las zonas de producción en base a la calidad de las aguas y sus efectos sobre el ejercicio de la acuicultura y el marisqueo.

En base a ello, a través de la Orden de 2 de julio de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, se estableció la clasificación de las zonas marítimas de producción de moluscos del litoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siendo modificada respecto a determinadas zonas, mediante Orden de 1 de julio de 1997, como consecuencia de los resultados obtenidos de los análisis que pusieron de manifiesto alteraciones en sus grados de contaminaciones microbiológicas. La reordenación fijada por esta última disposición fue mantenida por la Orden de 16 de Octubre de 1998, dado que aún perduraba el estado de contaminación que provocó el cambio de clasificación de determinadas zonas.

Los estudios y análisis biológicos realizados con posterioridad respecto de la contaminación de las zonas del litoral del País Vasco, arrojaron como resultado elevados índices de bacterias y baja oxigenación, hecho que obligó, en aras a proteger la salud humana, a la recalificación y cierre de determinadas zonas mediante la Orden de 28 de septiembre de 1999.

Por su parte, las sucesivas Órdenes de 12 de diciembre de 2000 y 24 de septiembre de 2001 mantuvieron la clasificación contenida en la precitada Orden de 28 de septiembre de 1999, debido a que persistía el estado de contaminación expuesto en el párrafo anterior.